

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure eskarmentua aprobetxatuta:

- ✓ Bisitatu beharreko zenbat leku dituzu "motxilan"? "Galdu ezinezko" zenbat lekutara joana zara? **Entzun** Gaztea Irratiko *Bisitatu beharreko lekuak* izeneko audioa: hor aipatzen dute zein diren munduko 20 lekurik ederrenak, bizitzan behin, gutxienez, bisitatu beharrekoak. Behin entzunda, **komentatu** ikaskide batekin eskolan: horietako zenbat ezagutzen dituzu?, zein leku eder ahaztu zaie irratikoei?... [Hona hemen helbidea.](#)

Internet aprobetxatuta:

- ✓ Sare sozialei eta Interneti esker, gaur egun, hainbat modu dauzkagu bidaiatzean diru gutxiago gastatzeko. Jakin nahi duzu nola aurrez dezakezun? **Sartu** www.ikasbil.eus web-orrian, eta **egin** ezazu *Bidaia merkeago ateratzeko aholkuak* izeneko jarduera. Sekuentzia horretan, honako hauek egingo dituzu: pentsatu zer bidaia atera zaizun garestien edo merkeen; erreportaje bat entzun eta hari lotutako galdera batzuei erantzun; aholkuak emateko hainbat egitura landu; joan nahiko zenukeen toki garesti bat pentsatu; eta, azkenik, aholkuak eman ikaskide bati dirua aurrezteko. [Hona hemen helbidea.](#)
- ✓ Hitz egin ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **EiTBko bi saio hauek (bata, bideoa; bestea, idatzizko testua)**. Ikus edo irakur itzazue, nork berea, egin ezazue laburpentxoak, eta **azal** **iezaiozue** **elkarri**.
 1. Oporretan joaten zaretenean, maleta itxi ezinik ibiltzen zarete? (*Gure kaxa* saioa). Lan handia ematen al dizue maletak antolatzeak? Ana Goitiak hainbat trikimailu emango dizkigu. [Hona hemen helbidea.](#)
 2. Oporretan ezustekorik ez izatea (*Consumer* aldizkaria). Amestutako bidaia frustrazio-segida bihur ez dadin, funtsezko antolamenduaren eta informazioaren berri emango digute. [Hona hemen helbidea.](#)
- ✓ Zer egiten duzu leku paradisiako batera iristen zarenean, momentua bizi edo hori betiko gogoraraziko dizun argazkia atera? **Ikus** ezazu *Momentuaz gozatu edo argazkiak egin?* izeneko bideoa, eta **grabatu** audio labur bat zure iritzia emateko (horretarako, jarraitu bideoaren egitura, lau galdera hauei erantzunda: 1. Argazki asko ateratzen dituzu? / 2. Momentuaz gozatzen duzu ala argazki on bat atera nahi izaten duzu? / 3. Lehen ez ziren hainbeste argazki ateratzen; gehiago gozatzen zuten? / 4. Egiten al duzu *selfie*-rik?). Behin iritzia grabatuta, **igo** euskaltegiaren blogera. [Hona hemen helbidea.](#)
- ✓ **Ikusi** Jon Arretxe euskal idazle eta bidaiariaren **11 bidaia, 11 liburu** izenburua duen hitzaldi hau (01:04:24), eta **komentatu** ikaskideekin. [Hona hemen helbidea.](#)
- ✓ Bidaiei buruz irakurtzea gustuko baduzu, hona hemen aukera paregabea: Lorenzo Rojoren **Munduan barrena bizikletaz** izeneko liburua. **Irakurri** horren inguruko argibideak, eta, animatuz gero, liburua bera ere irakurri! [Hona hemen argibide gehiago.](#)